

Edizioa XVIII. mendeko Euskal Herrian: datu kuantitatiboak, joerak eta inprimategien bilakaera Wikidataren argitan

Iñaki Lopez de Luzuriaga Martinez
Historialaria, itzultzailea eta wikilaria

Artikulu honetan, XVIII. mendeko Euskal Herrian edizioak izan zuen bilakaeraren berri ematen da. Azterketa honetarako abiaburutzat humanitate digitalen diziplinarteko proiektu hau hartu da, ezagutza librea sustatzeari begira: aztergai dugun eremu geografiko eta eperako, egituratu eta Wikidatara igotzea Bizkaiko Foru Liburutegiko *Lau Haizeetara* katalogo bibliografiko digitala. Lagin hori eta beste katalogo digital eta ikerlan batzuetako datuak baliatuz eta kontrastatuz, laburki aztertu dira Euskal Herriko XVIII. mendeko inprimategiak, inprimatzaileak, inprimaturiko agiri eta idazlan motak, kopuruak eta joerak. Irakurleak ezagutuko du inprimategiak hiriburuetan iraunkorki errotu zirela eta edizioaren bilakaera orduko gizarte eta historiako baldintzei hertsiki loturik ageri dela.

GAKO-HITZAK: Euskal Herriaren historia · Edizioa · Bibliografia.

Edition in the 18th-century Basque Country: quantitative data, trends and evolution of the press in the light of Wikidata

This article offers an approach to the evolution of printing in the 18th-century Basque Country. The study stems from an interdisciplinary digital humanities project aiming at the promotion of free knowledge, i.e. structuring and uploading to Wikidata the bibliographic material printed in the above geographic area during that period, as available in the digital bibliographic catalogue *Lau Haizeetara* provided by the Regional Library of Biscay. This sample, data-matching with other digital catalogues and other research lay out the basis for a summary analysis of printers, presses, types of documents and texts, figures and trends of the publications issued from them. The reader will learn that presses settled down permanently in the main capitals and that publishing evolved out in close connection to the period's social and historic circumstances.

KEY WORDS: History of the Basque Country · Publishing · Bibliography.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.126.2023.2>

Jasotze-data: 2022-12-28 *Onartze-data:* 2023-04-05

1. Sarrera¹

Ezagutza antolatu eta transmititzeko teknologietan, bide luzea egin da panglosa² eta Wikipedia Abstract³ harrigarriak errealitate bihurtzen ari diren garaiotara heldu arte. Denboran atzera eginez, Internet eta ordenagailuaren agerpena ditugu gailu gertuenak, idazmakina lehenago, eta makinetan, zaharren, moldiztegia. Hurrenez hurren asmatu diren gailuek informazioaren biltze eta transmisioaren bolumen, abiadura eta zabalkunde gero eta handiagoa ekarri dute.

1453an asmatu eta gero, 1489an Arnaut Gilen Brocarkoak Iruñean *Manuale Pampilonense* idazlana plazaratu zuen, Euskal Herrian lehendabizikoa. Inprimategiak pixkanaka zabaldu ziren Euskal Herrian, egonkortasun gutxiz toki bakoitzean. XVII. mendearen amaierarako, euskal lurraldeetako lautan ezarri ziren uneren batean inprimategiak. Dena den, XVIII.a izan zen edizioaren mendea; orduan sustraitu zen gurean, aztergai dugun eremuan.

Joxe Azurmendik mende horretan Euskadin argitaratu zen guztia ezagutzearen interesa nabarmendu zuen (*Pentsamenduaren historia Euskal Herrian*, 2020), humanitate digitalen proiektu baten eta ikerlan labur honen abiaburu. Bada, artikuluan, XVIII. mendea izango dugu aztergai, eta ikuspegi kuantitatibo batetik abiatuta garai hartako euskal lurraldeetako inprimategien bilakabidea deskribatuko da, orduko gizarte-testuinguruan eta garaian kokatuta. Hizkuntza- zein genero-gaiak zeharka baino ez dira aipatuko, eta beste artikulua batean dira aztertzeokoak xeheago.

Ikerlan honek diziplinarteko marko bat du abiaburu, eta lan-testuinguru horretan umotu da: katalogazio-lan bat, humanitate digitalen eta ezagutza askearen ikuspegitik landua, aztergai honen iturrietako bat dena. Aipatu katalogazioaren oinarri teorikoan, Datu Ireki Estekatuen ideia dago (Linked Open Data), Tim Berners-Leek azaldua (Berners-Lee, Five Star Data), non bost izarreko datuak zuzenean estekaturik baitaude beren jatorrizko testuinguruari⁴.

Ikerketa hau historiaren eta azterketa bibliografikoaren artean kokatzen da. Euskal Herriko edizio eta liburugintzaren, bibliografiaren historiaz, ezaguna da azken bi mendei buruz egin den bilketa-ahalegin handia, autoreetan Jose Mari Torrealdei eta Jon Bilbao nabarmenen, euskal kulturako zein hizkuntzako gaietara erreparatzen diena. Halaber, aipagarria, literaturan Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan talde-proiektuaren baitan egin biltze- eta katalogatze-lana (Olaziregi, 2017-2019).

1. Artikulu hau humanitate digitalen inguruko euskarazko ikerketa sustatzeko UEUren poltsa bati esker egin ahal izan da. Eskerrak bihoazkio Bizkaiko Foru Liburutegiari katalogoa digitalizatzen hartu lan eta nekeengatik, hartara era honetako ikerlanak egiteko modua eman duelako.

2. Panglosaren inguruan, UEUk «Panglosa problematizatzen hackathoia» jardunaldia antolatu zuen 2022ko azaroaren 24an Errenteriako Badalaben. <http://www.ueu.org/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/1825/HD-EH2022%253A%2BTeknologia%2Beta%2Bgizartea.%2BPanglosa%2Bproblematizatzen%2Bhackathoia>.

3. Garatzen ari den datu egituratuaren oinarritutako Wikipedia bakarraren egitasmoa, zeinek bere hizkuntzan ikusi ahal izango duena. Ikus Wikipedian: «Abstract Wikipedia».

4. Wikidatara sartu diren elementu bibliografikoen zerranda, egituraturik eta estekaturik, Euskarazko Wikipediako orri batean daude eskuaren osorik, artikulu honen osagarri: «Wikiproiektu:XVIII. mendean Euskal Herrian inprimatu idazkiak» URL: https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:XVIII._mendean_Euskal_Herrian_inprimatu_idazkiak

XIX. mendearen aurreko bibliografiaren bilakaeraz eta edizio-lanen (inprimatze-lanen) bilketan, aipatzekoak dira Angel Allende Salazar (*Biblioteca del Bascófilo...*, 1887), Julien Vinson (*Essai d'une bibliographie de la langue basque, 1891 eta 1898*), Genaro Sorarrain (*Catálogo de obras euskaras*), horiek ere eskusiban edo bereziki euskal gaiari loturik (Fernández de Casadevante Romaní, 2016 /01-06). Espainiaren testuinguru zabalagoan, ezinbestekoa *Historia de la edición y de la lectura en España (1472-1914)* talde-argitalpena moldiztegiaren sorreratik XX. mende arte («La edición en España»), dudarik gabe edizio-ko datuen iturri oparoa eskaintzen duena.

Gure aro digitalean, euskal gaien edizioaren bilakaeraren laburpena eman du Eneko Zuloagak Auñamendi Entziklopedian: «Argitalpenen historia Euskal Herrian» (2011). Edizioaren ikuspegi zabalago batez baina aztergaia lurralde historikoetara mugatuz, edizioaren bilakaera landu dute azken urteetan Fernández de Casadevante Romaník, Gipuzkoaz (2016), Cesar Santoyok, Arabaz (1995), eta Itúrbide Díazek, Nafarroa Garaiaz (2007). Artikulu honek Euskal Herriaren osoko ikuspegia lantzen du, eta hutsune hori betetzen lagundu nahi du.

2. Ohar metodologikoak (*Lau Haizeetara* katalogoa eta bestelako iturriak)

2.1. Lagina, iturriak eta distortsioak

1700-1799 aldian Euskal Herrian inprimaturiko idazlan kopuruaren berri antolaturik emango digun zerrendarik ez da. Ikerlan honetan, *Lau Haizeetara* katalogoko lagin bibliografikoko datuak aztertu dira, beste katalogo batzuetakoekin kontrastatu, eta orain arteko gaiari buruzko bigarren mailako ikerlanei erreparatu zaie. Hartara, edizio edo inprimaketari buruzko deskribapen zabal bat egingo dugu, edizioaren joera kuantitatiboak azaldu, eta gure lurraldeetako edizioaren inguruko barne- eta kanpo-dinamikak aztertu. Edizio-jarduera egokitu zitzaion gizarte-testuinguruan eta garaian kokatuko da.

Aipatu katalogoan oinarrituz bakarrik, Euskal Herrian XVIII. mendean argitaraturiko elementu bibliografikoen kopuru hauek eskuratu dira, inprimaturiko tokiaren arabera emanda:

Inprimalekua (hiria/herria)	Sarrera bibliografikoen kop.
Baiona	7
Bilbo	106
Donostia	26
Gasteiz	62
Iruñea	204
Tolosa	6*
OROTARA	411

* 1701. urteko Francisci Bayle... *Opuscula: quorum alia nunc primum in lucem prodeunt* kendu da, erratuki agertzen baita Gipuzkoako Tolosaren zerrendan: Tolosa Okzitaniari dagokio.

Ikus daitekeenez, 411 argitalpen zenbatu litezke *Lau Haizeetara* katalogoan, erdiak Iruñekoak eta laurden bat baino gehiago Bilbokoak. Bestalde, Wikidatara elementu horiek igotzean eta, beraz, datu-base horretan oinarritu grafikoetan (Wikidatako lagina), kanpoan utzi ditut ezaugarri hauexek dituzten sarrera bibliografikoak: esplizituki zehazten dutenak jatorriz beste inprimaleku batean argitaratu zirela eta Euskal Herriko dagokion izenburua berrinprimatze bat dela. Kanpoan utzitako elementu horien artean sailkatu behar dira 1767az geroztik Bilbon ia urtero berrinprimatu ziren errege-aginduak, jatorriz Madrilgoak: zedulak eta dekretuak. Bilbon, era horretako 47 berrinprimatze identifikatu dira, eta Donostian, bost. Guztira, 52.

Katalogo horretako bilaketaren emaitza eskuratu ondoren, OpenRefine aplikazioa baliatuz (<https://openrefine.org/>) informazio-mordoilo hori garbitu eta egituratu da, eta Wikidatara igo. Wikidatara igotako datu-multzoa da grafikoetarako oinarri, oinarri dinamikoa, etengabe eguneratu baitaiteke. Wikidatan, gainera, elementu bibliografiko gutxi batzuk lehendik existitzen ziren. Ezin da bermatu grafikoetan, Wikidatara sartutako elementu bibliografikoak % 100 islatzen direnik; izan ere, distortsio txikiak gerta daitezke, elementuren batek baino gehiagok propietateren bat definitu gabe baldin badu, hala nola inprimalekua (Wikidatan, «argitaratze lekua», P291 propietatea) edo inprimatzailea («nork inprimatua», P872).

2.2. Ikerketarako beste iturri batzuk

Gure ikerketa ez da bakarrik *Lau Haizeetara* katalogoaren gainekoa izan. Katalogo hori digitalizazio-lan baten emaitza da, baina ez XVIII. mendean dagoen guztiaren zerrendatze agortzailea. Informazioa osatzearen, mendeari buruzko beste iturri batzuk ere kontsultatu dira, ikerlanak bereziki, baina baita beste liburutegi digital batzuk ere, eta hortik ondorioak atera. Beraz, Euskal Herri osoko azken kopuruak handiagoak dira oinarritzat hartu dugun katalogoko zerrendak baino (lagina).

Kontsultatu ditugun liburutegi digitaletako datuak ez daude egituratuta, eta zuhurtasunez aletu eta irakurri behar izan dira. Izan ere, funts bibliografikoen digitalizazio-prozesuak martxan dira oraindik eta bilaketa aurreratuetako iragazkiak ez dira beti nahi bezain zehatzak. Gainera, katalogo digital batzuek beste katalogo batzuetako emaitzak ere zerrendatzen dituzte. Adibidez, Sancho el Sabio Fundazioaren (SSF) liburutegi digitaletako bilaketa batek *Lau Haizeetarako* hainbat emaitza errepikatzen ditu, beste funts bibliografikoen berri ere ematen baitu.


Baionan oinarritu *Bilketa* liburutegi digitaletako funtsen bilaketa batek emaitza hauexek eskaini ditu XVIII. mendeko Baionarako: 132 elementu bibliografiko, horietatik 122 Fauveten inprimategikoak; gainerako hamarrak, berriz, Baionako beste inprimategi batzuetakoak⁵. Fauvet leinukoez bestelako inprimatzaileen urritasun horrek zentzuzkoa dirudi, kontu egiten bada argitalpenen unibertsoan lan egiten zuten Baionako beste eragile aktiboek liburu-saltzaile titulua zutela gehienetan, eta ez inprimatzaile. Gipuzkoan, folletoiak eta liburuak kontuan hartuz, 209 edizio-

5. Bilaketok *Bilketa*ko teknikariek egin dira bilaketa aurreratuko iragazkiek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz (www.bilketa.eus) eta gaurko egunean eskueran den informazio digitalizatua jasoz.

lan (inprimatze-lan) zenbatu dira guztira mende osorako (Fdez. de Casadevante Romani, 2015: 33).

Hala Baionako nola Gipuzkoako kopuru urriek talka egiten dute Iruñeko kopuruekin: gutxienez, XVIII. mende osoan argitaratu 721 idazlanen berri heldu zaigu (Iturbide Díaz, 2007, 1: 1). Ez da harritzekoa, Iruñea Nafarroako Erresumako hiriburu izanik eta, ondorioz, Euskal Herriko hiri inprimatzaile nagusietako bat. Erresuma ez izanagatik, Araban, Gasteizen inprimaturik, mila izenburutik gora zenbatu dira 1722tik 1800era. Kalkulatu ahal izan denez, Baltasar Manteli inprimatzaileak bakarrik (1786-1824) hamabost izenburutik gora inprimatzen zituen urteko, Gasteizen (Santoyo, 1995: 34, 256).

Kopuru partzial horiek oso hurbil leudeke *Euskariana* liburutegi digitalak bilaketa aurreratuan eskaintzen duen Euskal Herriko guztizko kopuruarekin, 2.183 emaitza Euskal Herri osorako, ikerlan honen irismena gainditzen duen egiaztapen sakonago bat beharko lukeen arren. Sancho el Sabio Fundazioaren katalogoak bezala, *Euskarianak* Euskal Herriko beste funts digitaletatik ere edaten du, tartean dela *Lau Haizeetara*.




1. irudia. Euskal Herriko argitalpen kopuruak urteka (1700-1799, Wikidatako lagina).

2.3. XVIII. mendeko edizioaren bilakaera kuantitatiboa

Urteei erreparatuz gero, 1700. urtean hasi eta hurrengo urteetan, ikus daitekeenez, argitalpen kopuruak urriak dira 1728 arte, 1,32 edizio-lan urteko batez beste. Kontuan hartu behar da 1701, 1703, 1707, 1708, 1716, 1717, 1719 eta 1724. urteetan ez zela ezer inprimatu. 1728an, bigarren ziklo bat hasten da kuantitatiboki, kopuruz sendoagoa, 1764 arte. 1755. urtearen ondotik, urtero laster hazten da argitalpenen kopurua 1761 arte.

Argitalpen ugariko urtea da hori Iruñean: hamaika argitalpen, erlijio-gaietan emankorra, Jesusen Konpainiak hauspoturik. Nolanahi ere den, bada 1757. urtean jaitziera txiki bat, mendeko 3,07ko idazki inprimaturen batez bestekotik zertxobait behera.



2. irudia. 1700-1799 aldiko argitalpen kopuruen bolumenak urteka (Wikidatako lagina).

1761. urte emankorraren ondoren, Euskal Herriko argitalpen kopuruak zulo batera erortzen dira hurrengo lau urteetan: idazki inprimatu bakarra dago 1762an; lau elementu bibliografiko inprimatu ziren 1763an, Iruñean, hain zuzen ere; bakar bat ere ez 1764an; eta lau, berriz, 1765ean.

Aldiz, 1766 edizioaren ekimen handiko urtea da, mendean edizio-lan kopuru handienekoa gure laginean, Nafarroaren historiaren eta, neurri desberdinetan (sustatzaile, autore, edizioaren zuzendari edo idazlanaren gai), Jesusen Konpainiaren inguruko hainbat idazlan eta liburuki berrinprimatuz. 1767an, bat-batean eteten da 1766ko izenburuen edizio kopuruen igoera lasterra. Ez doa oharkabeen: hain zuzen, 1766ko azaroaren 10ean, Arandako kondeak, Gaztelako Kontseiluko buruak, gaztelaniaz bestelako edozein hizkuntzatan argitaratzeko debekua eman zuen, Agustin Kardaberazzen euskarazko *Compendio de la vida de San Ignacio* idazlanari ezarritako debekuaren harira (Itúrbide Díaz 2007, 3: 33). Areago, Jesusen Konpainia Espainiako Koroaren peko lurraldetik kanporatua izan zen 1767ko apirilean, haren edizio-lanaren bukaera eta ondasunen desjabetzea ekarri zuena.

Edizio-jarduerak nabarmen behera egiten du hurrengo bi urteetan, baina edizio-erritmoa pixkanaka suspertzen doa gorabehera batzuekin mende-amaiera arte. Irudiotan ikus daitekeen bezala, 1785etik 1799ra arteko aldiari, gure laginean urteko sei edizio-lan ageri dira batez beste, eta urte horietakoa da inprimaketan (eta berrinprimaketan) bolumen handiena, 1794ko Konbentzioaren Gerrako beherakada handiaren salbuespenaz. Arestian adierazi bezala, datuok joera bat adierazten dute, baina ez inprimaturiko kopuru osoak.

Berredizio-lanak, administrazio-testuak gehienak, jatorriz Madrilen errege-agin-
duz maiztasunez argitaratu ziren 1767. urteaz geroztik: dekretuak eta zedulak.
Berredizio-lanen ekoizpen gehiena, goian aipatu Bilboko eta Donostiako 52ak,
1767tik mende-amaiera arteko aldiaren biltzen da. Beraz, grafikoa, bolumen handia-
goak espero beharko genituzke edizio-lan sorta hori gehituz gero.

3. XVIII. mendeko edizioa

3.1. Inprimategi urrien iraupen-kinka eta oparotasuna

XVIII. mendearen hasiera aztoratua izan zen: Ondorengotza Gerra, 1718ko
Matxinada, eta Lauko Aliantzaren Gerra ia aldi berean. Ezegonkortasunak urte batzuk
iraun zuen oraindik, baina argi geratu zen eragile inplikatu guztiek zutela bakerako
gogoak. XVIII. mendean, Hego Euskal Herriko lurralde-erakundeak sendotu egin
ziren, eta inprimategiak egonkortzen joan ziren. Kontrako bidetik, Bortuez iparraldera,
foru-erakundeak —bereziki Zuberoakoek (1730) eta Nafarroa Beherekoek (1748)—
ahalmena eta autonomia nabarmen galdu zuten, zentralismoaren mesedetan
(Lafourcade, 2010).

Mugatua zen Euskal Herriko inprimategien kopurua: 22 inprimatzaile
zenbatu dira aztergai dugun XVIII. menderako (Oregi Zarautz, 1997: 582-583);
batzuk, ordea, denbora oso laburrez existitu ziren, eta gehiago ere egiaztatu ahal
izan ditugu. Inprimatzaile kopuru horiek lantegi berberen askotariko belaunaldien
isla dira, batzuetan. XVI eta XVII. mendeetako sakabanaketa handiagoaren aldean,
XVIII. mendean inprimategiak hiriburuetara bildurik agertzen dira (salbuespen izanik
Tolosa): Baiona, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea (Oregi Zarautz, 1997: 579-582).
Inprimategi horietan, ez dira gutxi jabe eta titular agertzen diren emakumeak, euskal
lurralde guztietan.


Aipatu bezala, inprimatzaileak gogor lehiatzen ziren aurrera egiteko, elkarren
artean, askotan. Udal- edo foru-erakundeetatik urteko soldata jasotzeak ez zuen
bermatzen hitzartu epean kobratuko zutenik, orduan ere ohikoak baitziren zorrak eta
berandutzeak. 1771n, Lorenzo Josef Riesgo kexu agertu zen Donostiako Udalak ez
ziolako hamabost urtez ordaindu; ondorioz, gauza pertsonalak saldu beharrean ikusi
zuen bere burua (Fdez. de Casadevante Román, 2015: 13-22).

Nafarroa Garaian, Errege Kontseiluaren ikuskatzaileek kontrolerako bisitak egiten
zituzten inprimategietara, hala nola Bortuez iparraldera, debekua eta inprimatzaileen
kontrola indarrean zen. Mendea hasteko, Errege Kontseiluaren 1700eko abenduaren
6ko dekretu batek geldiarazi nahi izan zuen «erlijioari, erregetzari eta ohiturei eraso
egiten dieten liburuak inprimatzea», aldi berean inprimategi gehiegi zeudelako ustean.
Ondorioz, Baionan aritzen ziren hiru inprimatzaileak deitu zituzten deklaratzera,
prokuradorearen eta zinegotzien aitzinean haien jardueraren berri zinpean eman
zezaten.

3.2. Inprimalekuak eta inprimategiak

3.2.1. Baionako inprimategiak

1700ean, Baionako liburu-saltzaileak eta inprimatzaileak deitu zituzten errege-ordezkararen aitzinean deklaratzera, eta Paul Fauvet, Jean Maffre eta Dussarrat Pierre agertu ziren. Hirurek adierazi zuten Baionakoak zirela, baina Fauvet zen bakarrik inprimatzaile (Batcave, 1908:13-23 eta Arana Martija, 1994). Ikuskapenak argi uzten du bi inprimagailu edo moldiztegi zituela une horretan; saltoki bat ere bazuen (Iruñeari buruzko agirietan, *botiga* deitzen zaie saltoki horiei), liburu *txar* gutxi batzuekin.



3. irudia. *Jesu-Christoren imitacionea* idazlan espiritual, M. Xuriok ondua eta 1769an Baionan Fauvet-Duhart inprimategiak argitara emana.

1704an, udal-agindu baten arabera, Baionak ofizialki bi inprimatzaile izango zituen engoitik: Paul Fauvet eta, Claude Labottière bordelesak hala izendaturik, Étienne Labottière semea; konparazio baterako, Tolosa Garonak hamabi zituen. Haatik, Étienne ez bide zen inprimatzaile-lanetan hastera heldu eta, haren ordez, 1711n, Mateo Roquemaurel inprimatzailea (frantsesez Mathieu izenaz aipatua) hirian finkatu zen Tarbetik helduta Catherine Destandeu emaztearekin batera (Vinson, 1889: 211-232). 1717an, berriz, Roquemaurel inprimatzaileak, Apumaiu karrikako egoitzadunak⁶, Sarako Joanes Etxeberriren *Lau-Urdiri Gomendiozco Carta edo Guthuna* idazlana editatu zuen.

6. Izendapen bitxia, dudarik gabe «*Rue Pont-Mayou*» euskaratu ondoren. Jatorrizko testuan agertzen da.

Bada, Paul Fauvetek salaketa jarri zion horregatik, inprimatzeko lizentziarik ez zuelakoan, eta udal-agintariak Fauveten aldera lerratu ziren. Hurrengo urtean, Fauvetek Roquemaurelen kontra jo zuen berriz, oraingoan *Exercicio espirituala* idazlanak apezpikuaren inprimatzeko onespren faltsua zuelakoan. Euskarazko idazlan horren ia 100 aleak atzeman zizkieten Roquemaureli. Negozioa itxi behar izan zuen (Vinson, 1889: 211-232).

XVIII. mendearen bigarren herenerako edizioa Baionan aski ongi finkaturik egon arren, zubereraz euskaratu Martin Maisterren *Jesu-Kristen Imitacionia* Pauen inprimatu zen 1741ean. Mixel Xurioren *Jesu-Christoren Imitacionea* Bordelen inprimatu zen 1720an, Guillaume Boudé-Boéren lantegian. 1769an, berriz, Fauvet-Duhart inprimategiak argitaratu zuen bigarren argitaraldia, oraingoan Baionan (Arana Martija, 1994: 47).

Paul Fauvet aitak hiriaren inprimatzaile-titulua zuen, aitak lehenago ere izan zuena. Eginkizun horretan, Fauvetek 170 liburu inprimatzeko konpromisoaren soldata zuen 1716an eta 1720an, herriko etxeari gehiago erreklamatu zion arren; edo, bestela, urririk bizileku bat uzteko. Bestalde, 1725ean, Claude Labottière Bordelera itzuli zen, Baiona gibelean utzita. Paul Fauvet aitak eta Joanes Fauvetek bigarrenarentzat erreklamatu zuten Zubi Berriaren karrikako Labottière-eren inprimategi liburu-denda, Baionako bigarren inprimategi baimendua. Beren alde adierazi zuten intendente, apezpikutza, muga-zergen bulego, herriko etxe eta polizientzat inprimatzen zutela. Baionako Herriko Etxeak Joanes onartu zuen hiriko bigarren inprimatzailetzat (Vinson, 1889: 211-232).

Paul Fauvet (aita) 1736an hil zen, eta negozioa alargunari utzi zion ustia zezan, eta hura, berriz, Joanes suhiarekin elkartu, baina luze gabe haren anaia Pierrek hartu zuen negozioaren lema. Are, 1737an hiriko inprimatzaile-titulua aitortu zitzaion Pierreri. Zernahi gisaz, segur aski Pierre Joanesekin eta amarekin aritu zen lankidetzan inprimatzaile-lanean, 1757. urte arte. Hain zuzen, urte horretan berretsi zioten hiriko inprimatzaile-titulua, eta orduan hasi bide zen bakarka lanean (Vinson, 1889: 211-232). 1749an, alarguna eta seme bat agertzen dira inprimatzaile *Ordonnances synodales du Diocese de Bayonne* argitalpenean: Joanes Fauvet eta Fauvet alarguna (Maria Etxeberri). Haiek ezarri zituzten kazetaritzaren haziak hiriburu horretan, *Journal Maritime de Bayonne* argitaratuz 1757ko apirilean, Ipar Euskal Herriko lehendabiziko aldizkari ezaguna.

Gainera, Joanesek kazetaritzaren euskarazko kazetaritzaren ernamuina landatu zuen, berripaperak argitaratuz: *Jaun Dauphin cenaren eritassuneco errelacionea*, frantsesezko jatorrizko batean oinarritua (galdua), bederatzi orrialdekoa eta irakurle euskaldunei zuzendua (1766koa). Irakurle horiek bereterrak izan ziren gehiengan, herriko apaizak eta elizjendea, kontserbadoreak eta euskaltzaleak, eta geroko euskal kazetaritza kontrairaultzailearen hazia. Joanes Fauvet 1760an hil zen; ordurako, inprimatzailea eta koadernatzailea zela aipatzen zen (Díaz Noci, 2000-05-12 / 2000-05-19).

Joanesek Paul semea izan zuen oinordeko. 1760ko irailean, zin egin ondoren, Baionako inprimatzaile izendatu zuten errege-aginduz. Ordurako, semeak heziketa

oparoa eta eskarmentua zituen, Tolosa Garonako jesuiten artean eta Pariseko errege-inprimategian, hurrenez hurren. Negozioak Fauvet-Duhart edo Duhart-Fauvet izena hartu zuen 1764tik aurrera, Paul urte horretan ezkondu baitzen Hazparneko notarioaren alabarekin, Maria Duhart (edo Uharte). Paul Fauvet-Duhart 1791n hil zen, ordurako hiru haur zituela: bi alaba eta seme bat. Paulek azken haur hori, Pierre-Armand-Joseph-Pascal, izendatu zuen oinordeko, 1776an sortua eta 1845ean hila, Baionan (Vinson, 1889: 211-232). XIX. mendeko lehen urteetan, Pierre Duhart-Fauvet horrek protagonismo berezia hartu zuen Frantsestean (1811-1814), Donostian zein Gasteizen okupatzaile frantsesen kazeta ofizialak inprimatuz (Santoyo, 1991).

1777ko Erresumako inprimatzaileen eroldan zehazten da Baionan bi inprimategi bazirela, Paulena eta Pierrerena, 1768ko dekretuz hala baimendurik, gaineratu ere egiten zen arren «bakarra nahikoa» zela, eta Pierreren inprimategia kolokan zela. Bada, Pierre 1781ean hil zen, eta Paulek hartu zuen haren negozioaren lema, behin-behinean. Gero, Pierre-Hyacinthe seme zaharrenak hartu zuen oinordetzan Pierre aitaren negozioa, eta hura Catherine Pegrosekin ezkondu zen 1793an. Inprimategia Zubi Berriaren karrikan zuten; Paul Fauvetena, berriz, Orbe karrikan zen, Baionako inprimategien kokapen zaharra. XIX. mendearen hasieran (1803), Bernard Lamaignèrek, Pauen 1777an sortuak, beste inprimategi bat ireki zuen Baionan (Vinson, 1889: 211-232); Jean semeak eman zion segida negozioari hurrengo mende erdian.


3.2.2. Iruñeko inprimategiak

XVIII. mendean, Iruñea da inprimategietan ugariena Euskal Herriko lurralde guztien artean. Nafarroak erresuma-estatusa zuen, eta bazuen Erresumaren inprimategi bat bertako foru-erakundeek agindu agiriak editatzeko. Lehia bizia zen Erresumaren inprimatzaile-postua eskuratzeko, nahiz eta denboraren joanean, monopolio hori galtzen joan zen, eta horren zilegitasuna auzitan jartzen. 1716an, Nafarroako Gorteek erabaki zuten bertan behera uztea Erresumaren inprimatzaile-postua eta esleipen-sistema (eta hari zegokion soldata). Berdin gertatu zen Iruñeko Udalarekin (Erregimentuarekin), 1717an, Ondorengotza Gerraren ondoriozko gastuak murriztearren (Itúrbide Díaz, 2007, 2: 225-227). Hala ere, era horretako monopolioak ez ziren osoki bertan behera utzi foru-erakunde guztietan.

Erresumaren inprimatzaile ofizialaren postua Martin Gregorio Zabalak izan zuen 1700 arte, eta haren erreleboa hartu zuen Francisco Antonio de Neirak beste hura hil zenean. Luze gabe, ordea, Juan Josef Ezkerrorekin batera aritu behar izan zuen postu ofizial horretan. Hain zuen, elkarrekin eta Valladolidetik deitutako Fernando de Cepedak gidaturik argitaratu zuten 1703an (1704an) *Annales de Navarre* Erresumaren kronikaren hirugarren liburukia, egitasmo instituzional anbiziotsua, Aleson aitaren mandatuz egina (Itúrbide Díaz, 2007, 2: 418-419).

Francisco Picartek, Aragoiko Erresuman jaioak, Frantzian argitaratzen zen *La Gazette* aldizkariaren gaztelaniazko bertsioa argitaratzearen monopolioa eskuratu zuen 1704an, baita trebeki inprimatu ere *Annales de Navarrako* laugarren eta bosgarren liburukia 1715erako, azkena Vianan argitaratua (Itúrbide Díaz, 2007, 2: 436-437). Horretan lankide izan zuen José Joaquín Martínez (1685-1741),

Vianara horretarako heldua, segur aski Errioxatik, geroago Iruñean finkatua. Hain zuzen, Iruñetik kanpora Vianan inprimatu ziren Nafarroan bi idazlan bakarrak une horretantxe: aipatu *Annalesko* liburukia eta Juan de Vianaren biografia.



4. irudia. *Annales de Navarra* kronikaren hirugarren liburukia, Iruñean Fernando de Cepedak 1704an inprimatua.

Francisco Picartek Martin Francisco seme zaharrena izan zuen oinordeko edizio-lanean, baina ez zen aita bezain emankorra izan. Jose Joaquin Martinezi zor diogu *Novísima Recopilación de las Leyes de Navarra* inprimatu izana (300 joko edo sortako tiradaz), Diputazioak lehiaketan hala esleiturik (1729), orduko Iruñeko beste hiru inprimatzaileen gainetik: Pedro Josef Ezkerro, Alfontso Burguete eta Francisco Picart.

Pascual Ibañez, jatorriz Salbaterra Ezkakoa, Martin Jose Radarekin eta Miguel Antonio Domech haren nagusiarekin bazkidetu zen Iruñeko Ospitale Nagusirako lanak egiteko 1747an, Zaragozan hezi eta lanean aritu ondoren. Ibañezek koadernatze-lanen ardura hartuko zuen hitzarmen horretan. 1751n, Ibañez inprimatzaile bihurtu zen oinordetza bati esker, eta Jeronimo Anchuelaren inprimatze-tresneria erosi zuen, zorreatatik konfiskatua eta salgai jarrita zegoena. Ibañezen negozioa handituz joan zen, inprimatzaileak kontratatuz horretarako. Josef Miguel Ezkerrok salaketa bat jarri zion 1761ean, Juan de Palafoxen *Cartas* editatzen aritzearen, Ezkerrok hura inprimatzeko Nafarroako Errege Kontseiluaren emakida (pribilegioa) baitzuen. Ez zuen ezkerrotarren salaketa bakarra izan; izan ere, legez kanpoko argitalpen gehiago ere inprimatu zituen.

1750ean, Diputazioak *Annales de Navarra*ko liburukiak berrargitaratzeko asmoa agertu zuen. Domech inprimatzaileak obra horren bigarren edizio zabar bat editatu zuen 1756an, akatsetan eta testu-aldaeretan joria, eta nafar foru-erakundeek

gaitzetsia. 1766an, Esquilacheren aurkako matxinadaren epelean, bizkor areagotzen ari zen Karlos III.a espainiar erregearen zentralismoa, eta lan instituzional baten premia handia sumatzen zen Nafarroako Erresumaren lege eta erakundeen zilegitasun historikoaren berri zabaltzeko (Itúrbide Díaz, 2007:110-115). Bada, 1766an, lan horrek Pascual Ibañezen eskuetan bukatu zuen, *Annalesen* bost liburukiak kalitate handiz berrinprimatuz (Itúrbide Díaz, 2007, 2: 291-293). Hori izan zen obra horren hirugarren argitaraldia, bigarren baimendua. Aldi berean, Josef Moret Erresumako kronikariaren (eta jesuitaren) *Investigaciones históricas de las antigüedades del Reyno de Navarra* eta *Congresiones apologéticas sobre la verdad de las Investigaciones Históricas* idazlanen tiradak egin ziren. Guztira, zazpi liburuki, Joaquin Solano iruindarrak (jesuita ere) jatorrizkoari zintzo eta zorrotzasunez zuzendua. 500 ale atera ziren (Itúrbide Díaz 2007, 2: 291-293).

Idazlanetan, Ibañezek inprimatu zuenaren erdia gai erlijiosoak izan ziren, ia dena gaztelaniaz. Ibañez 1775ean hil zen, negozio oparoa utziz, eta haren lantegia Joaquin Domingo suhiaren eskuetara pasa zen, haren alabarekin ezkondua (Itúrbide Díaz, 2007, 2: 279-323).

Antonio Castilla iruindarra (1726 inguruan- 1792) Jeronimo Anchuela inprimatzailearen lantegian hezi zen, eta Maria Franciscarekin, Martin Francisco Picart inprimatzailearen alabarekin ezkondu zen. Hartara, aitagarreba horren lantegia eskuratu zuen. 1757an jarri zuen abian bere lantegia, eta bertatik atera ziren idazlan gehienak erlijiosoak izan ziren, horietako asko euskarazkoak. Hain zuzen ere, guztizko edizio-lanen % 40, gehienak jesuiten mandatuz egin idazlanak. Beste hainbeste inprimatzaile bezala, liburugilea (liburu-saltzailea) ere bazen. Nabarrerria auzoan bizi izan zen hil arte, eta ez zuen negozioan segida izan. Mende honetan, Iruñeko inprimatzaile gehienek Jondoni Batista auzoan zuten egoitza (Itúrbide Díaz 2007, 2: 330).

Benito Cosculluelak (+1794), Miguel Antonio Domech inprimatzailearekin heziak, 1767an ekin zion bere negozioari: liburugile, hasieran, eta inprimatzaile, Cosculluelari egokitu zitzaion kanporaturiko jesuiten liburutegiaren inbentarioa egitea, Espainiako Koroaren peko lurraldetik Jesusen Konpainia kanporatu ondoren, Domechekin zituen harreman onen erakusgarri. Izan ere, Domech zen konfiskatu ondasunei buruzko erregearen administratzaile eta Cosculluela Domechekin bazkidegurik ibili zen denbora batez. 1777an, agiri bat sinatu zuen nafar hiriburuko beste sei inprimatzaile nabarmenekin batera zerbitzu militarrik egin behar ez izateko, adieraziz erabilera publikoko lan batean ari zirela.

Cosculluela Jose Longasekin lankidetzan aritu zen 1779tik 1790era, besteak beste Feijooen idazlan osoak editatzen eta sustatzen, arrakasta handiko autorea garai hartako Espainiar Erresuma ilustratuan, hala nola *Teatro Crítico* lana, zortzi liburukikoa. Cosculluelak Nafarroan izan zituen batez ere erosleak (harpidedunak), Erresumako 419 herritan sakabanatuak (% 80), guztizko salmentaren 528 herrien aldean. Gipuzkoako herrietan ere izan zituen harpidedunak, 50 harpidedun, % 10 baino gutxiago. Miguel Ignacio semeari utzi zion negozioa oinordetzan.

Jose Longas (1744-1795), Cosculluela bezala, Aragoikoa zen, Nafarroako eskualde mugakideetako. Biak ere Iruñean finkatu eta Miguel Antonio Domechen

lantegian hasi ziren enplegatu. Longas Nabarrerian alokairuan bizi izan zen 1772tik aurrera, Josefa Ardanatz emazte eta seme-alaba ugarirekin batera, eta karrika horretan eskuratu zuen, halaber, inprimategia. 1791 arte, Cosculluelarekin bazkidetu zen. Longasek Frantzian frantsesez Jean Croissetek 1712an egin *Año Cristiano o Exercicios devotos para todos los días del año* izan zuen argitalpen arrakastatsuenetako bat, 1784tik hara hamabi liburukitan inprimatua, santuen bizitza eredugarrien bidez deboziorako gogoia sustatzea bilatzen zuena. Madrilgo gaztelaniatzko bertsioa hartu zuen oinarri (Itúrbide Díaz, 1995: 103-110).

Longasek Josefa Ardanatz eta Paulino semea hartu zituen oinordeko eta, harrezkero, Ardanatz agertzen da inprimategiaren eta liburu-dendaren titular semearekin batera 1800 arte. Batez ere idazlan erlijiosoak argitaratu zituzten, hala nola *Afectos y consideraciones devotas* eta *Compendio salmanticense*, baina baita kutsu didaktiko-zientifikokoak ere, *Ejercicio de matemáticas*, konparazio baterako. Aldi horretan, sei edizio-lan atera zituzten guztira. Santa Zezilia iturriaren parean zuten inprimategia (Itúrbide Díaz, 2007, 2: 17-24, 331).

Juan Josef Ezkerro, Los Arcosen 1664an jaioa, Nafarroako inprimatzaileen leinu oparo baten sortzaile izan zen. Inprimatzaile-lanean, teknikari frantses eta flandestarrak kontratatu zituen. Juan Josefek oinordeko izan zuen Pedro Jose Ezkerro Etxabarri (1693-1755) senitarte ugari batean. Maria Josefa Larunbe iruindarrarekin ezkondu zen, diruz eroso bizi zen familia batekoa, eta 1753an inprimatu zuen azken idazlana bere titular izenarekin. Hurrengo urtean, Pascual Ibañez eta Antonio Castilla inprimatzaileen aurkako salaketak aurkeztu zituen, lizentzia gabe argitaratzea leporatuta (Itúrbide Díaz, 2007, 2: 234-235).

Izan ere, hala Pedro Josef Ezkerro nola Josef Miguel seme eta oinordekoa sutsuki borrokatu ziren auzi luzetan foru-erakundeen kontratuen monopolioak eskuratzeko, lehiakideen kontra, hala nola Jeronimo Anchueta, Francisco Picart, Maria Francisca Neira eta Miguel Antonio Domech. Azken horrekin, zehazki, auzi-inprimakiak argitaratzeko monopolioa tarteko izan zen auzitan.

Diputazioa nafarren merkataritza-askatasunaren aldeko agertu zenean, auzi horiek eskumenen borroka politiko-instituzional bilakatu ziren: apelazioan, Gaztelako Kontseiluak emakiden monopolioaren alde ebatzi zuen 1747an, bat eginez Ezkerroekin, beste ebazpen batzuetan egin zuen bezala. 1783 arte auzitan jarri zen Nafarroako Errege Kontseiluak lizentziak emateko zuen ahalmena, Gaztelako Kontseiluari zegokiolakoan.

Gaztelako Koroak, izan ere, arreta bereziz jarraitu zituen euskal lurraldeetako inprimategiak, eta ez zituen kontrolpetik galdu nahi, zigorpean jarriz ez bakarrik autoreak eta haien lanak, zentsuraren bitartez, nola inprimatzaileak berak. Foruen gaia zen agintari espainiarren artean errezelo handiena pizten zuen gaia, hala nola Pedro Fontecha Salazarren *Escudo de la más constante fee, y lealtad de Vizcaya* foruen apologia, Bizkaian, zer gertatuko ere autore-sinadurarik gabe utzia. Autorearen izena falta zenetan, inprimatzailea zigortzen zuten (Azurmendi, 2020: 175), kasu horretan Antonio Eguzkitza⁷.

⁷ *Lau Haizeetara* katalogoko sarrera bibliografikoko oharrak bi argitaratze-data ematen ditu: 1748 edo 1762.

3.2.3. Gasteizko inprimategiak

XVIII. mendean, editatzen berandu hasiagatik, Gasteiz da inprimategietan hiri emankorra (Santoyoren estimazioa, ikus beherago), gibeletik dituela Iruñea, Bilbo, Donostia, Baiona eta Tolosa. Araban moldiztegia beranduen sustraitzeko, zerikusia izan zuten bertako biztanleriaren sakabanaketa, eta hiriburua bera, Gasteiz, landa-inguruneari hertsiki lotua izatea. XIX. mende arte, izan ere, ez zen 7.000 biztanle baino gehiago izatera heldu. 1627an egin zen lehendabiziko ahalegina inprimategi bat jartzeko, Batzar Nagusietan hori proposaturik. Horren alde erabaki bazen ere, ez zen bete, inbertsio faltaz dirudenez, eta bertako ordena erlijiosoek zein askotariko agintariek lurralde auzoetako inprimategietara jo zuten edizio-lanak egiteko: Bilbo, Donostia, Haro eta, are, Medina del Campo eta Madril (Santoyo, 1995: 13-28).

Sabin Oregik inprimatzaile hauek identifikatu ditu Gasteizen XVIII. menderako (Oregi Zarautz, 1997, II: 580) eta horiexek identifikatu dira, halaber, *Lau Haizeetara* katalogoan:

LAN AKTIBOKO URTEAK	INPRIMATZAILEA
1722-1738	Bartolome Riesgo Montero de Espinosa
1739-1781	Tomas Robles
1762-1763	Manuela Ezkerro Sanz de Txabarri
1781-1799 (+1801)	Gregorio Marcos Robles
1786-1799 (+1832)	Baltasar Manteli

Bada, Arabako lehendabiziko inprimategia, azkenean, 1722an sustraitu zen, Gasteizen, zenbait autorek erratuki adierazi izan duten arren lehenago ere egon zirela. Hiru urte lehenago, Pedro Ugarte inprimatzaile donostiarrak Frantziskotarren Ordenako *Estatutos... de la Santa Provincia de Cantabria* inprimatu zuen Donostian (Santoyo, 1995: 13-28)⁸. Gasteizek Bartholome Riesgo Montero izan zuen lehendabiziko inprimatzailea, jatorriz Madrilgoa, baina bizilekuz, ordu arte, logroñoarra. Manuela Ezkerroekin ezkondu zen Logroñon 1721ean, Los Arcosetik Iruñera ezkondu Juan Josef Ezkerro eta Teresa Saenz de Txabarriren alaba eta, beraz, inprimatzaileen leinukoa.

1722ko martxoan, Gasteizko agintariek hiriko auzotasuna aitortu zioten Bartholome, eta irailean bertan hiriko inprimatzaile ofizialaren titulua onartu zioten, hiriko edizioaren monopolioa baimentzen ziona. Gasteizen udan ireki zuen bere lantegia, Logroñon zuena atzean utzita. Urte horretako udazkenean, Arabako inprimatzaile-titulua izenpetuko zuen. Arabak *Quaderno de Leyes y Ordenanzas con que se gobierna esta Muy Noble y Muy Leal Provincia de Alava* izan zuen bertan inprimatu lehendabiziko idazlana, foru-erakundeen premiei erantzunez eta Jose Jacinto Alava ahaldun nagusiaren aginduz.

Riesgok 1726an argitaratu zuen Gasteizko bere idazlan gorena: Juan Bautista Novatiren *Eucharistici Amores ex Canticis Canticorum Eucleati*. Aipatu bezala,

⁸. Kantabriako Probintzia hori frantziskotarren barruti bat zen.

Gasteizen ia dena gaztelaniaz argitaratu bazen ere, 1731n Riesgok Martin Artzadun durangarraren *Doctrina Christianeen explicacinoa eusquera* inprimatu zuen, Manuel Larramendik aipatua (Santoyo, 1995: 29-80). Bartholome Riesgo hamabost urtez aritu zen inprimatzaile Gasteizen, eta segur aski ez zuen izan berak nahi besteko eskaririk. Hala ere, 50 argitalpen inguru atera ziren haren moldiztegitik.

1737tik aurrera Donostiara jauzi egin zuen Caracasko Gipuzkoar Konpainiak erakarrita. Bartholomek Gasteiz betiko utzi eta gutxira, lantegi bereko Tomas Robles langilea (ofiziala) automatikoki bihurtu zen hiriko eta Probintziako inprimatzaile ofizial, 1740tik aurrera Aldunditik urteko soldata finko bat jasoz trukean, 440 erreal, baita hobariak ere lan-karga eta idazlan gehigarrien arabera.

Tomasen inprimategitik irten zen idazlan ezagunena Bernardo Ibañez de Etxabarri gasteiztarraren *Vida de San Prudencio* izan zen (1754), XVI. mendearen hondarrean gerora Arabako santu zaindari bilakatu zenaren bizitzaz idatzia. Lurraldeko foru-erakundeei interesgarri iruditu zitzairen haren edizioa finantzatzea: 2.200 aleko tirada. Haatik, aztoramendu handiaren sorburu izan zen Araban eta Arabatik at, kontakizun faltsuak biltzea leporaturik. Piztu zuen polemika biziaren seinale, hamar urteren buruan, 120 ale baino ez ziren saldu, eta 1785 arte, 1.040 ale besterik ez (Santoyo, 1995: 81-158).

Tomas Roblesekin gai erlijiosoko idazlanak inprimatu zituen, hiriko zein lurraldeko foru-erakundeek agintzen zizkieten mandatuez gain, hala nola lege eta ordenantzak, baina haren edizio-lanari Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen mandatuek eman zioten bolumen handiena, saiakerak, bilkuren aktak eta laburpenak (*Extractos... serieko argitalpenak*). Bertan lantzen ziren burdingintza, kimika, medikuntza eta antzeko gaiak. Elkarrekin ilustratu hori 1765ean hasi zen jardunean, eta 1768an Tomasi Elkartearen inprimatzaile titular izatea onartu zitzaion (Santoyo, 1995: 81-158).


1774koak bide dira *Estatutos aprobados por S.M. para gobierno de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*⁹. *El borracho burlado, operacomica...* 1764an argitaratu zen, elebitan, Xabier Maria Munibe Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen sustatzaile nagusiak ondua eta Tomas Roblesekin inprimatua, baina ez egiletza («*un caballero guipuzcoano*») ez inprimatzailea ez dira esplizituki adierazten. Elkartearekin lankidetzan hasteko lehendabiziko proba bat izan daiteke, baina ausartegia bide zen inork hura sinatzeko.

1781ean Tomas hil egin zen, eta Gregorio Marcosek, semeetako batek, hartu zion erreleboa urte horretako azaroan (Gasteiz, 1749-1801), aitaren lantegian hamabi urtez gero lan egin omen bazuen ere, berak hala aitorturik. Lehia gogorreko aldia izan zuen Baltasar Mantellirekin 1786tik aurrera, jo eta ke lan eginez hala Arabako zein Gasteizko agiri ofizialak nola Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen argitalpen mandatuak eskuratzeko, biak ere lan-kargaren iturburu oparoak izanik (Santoyo, 1995: 81-158).

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan edizioaren eragile garrantzitsua izan zen Euskalerrriaren Adiskideen Elkarrekin, 1765ean sortua. Elkarrekin arteak erabilera praktikoa batez garatzeko interesa agertu zuen eta, horretarako, 1774ko azaroan,

9. Argitaratze-urteari buruzko oharra *Lau Haizeetarako* katalogatzailearena.

doako marrazketa-eskola bana sortu zuen Bergaran, Bilbon eta Gasteizen, arte eta ofizioen eskolaren aitzindari. Gogo suhar berdinez, Elkartek Baltasar Manteli gasteiztarra finantzatu zuen (1754), inprimategi bat ireki zezan.



5. irudia. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen estatutuak, Tomas Roblesen Gasteizko inprimategitik ateratakoak (1774?).

Mantelik Antonio Montel zuen aitona, iruindarra baina sortzez Calabriakoa, eta Iruñeko Udaleko turuta-jotzailea zen ekitaldi ofizial eta ospakizunetan. Familiak lanbide berean jarraitu zuen Gasteizera lekualdatu ondoren. Familiako tradizioari lotuz, Arabako Probintziako turuta-jotzaile kontratatu zuten 1769an. Luze gabe Maria Berrondorekin ezkondu zen, Igorrekoa (Santoyo, 1995: 249-279).

Bada, Mantelik urteko errenta kobratzen zuen horregatik lurraldeko foru-erakundeetatik, baina familia ugaria zuenez diru-sarrera sendoagoak bilatu zituen, eta beste koadernatze-negozio bat jarri zuen 1775etik aurrera, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen eta lurraldeko foru-erakundeen laguntzaz. Liburugile (liburu-saltzaile) ere hasi zen 1782tik aurrera, «gustu oneko» denda bati ekinez, Tomas Robles hil eta hurrengo urtean. Roblesek ere bazuen, izan ere, liburu-denda bat. Roblesen ondorengoa, Gregorio Marcos Robles semea, gainezka zebilen editatzen. Horixe egokiera ona izan zuen Manteli ekintzaileak euskal Elkarte ilustratu hari finantzaketa-eskaera bat egiteko, inprimatzen hasteko.

Era horretan, mailegu bat eskuratu zuen, eta moldiztegia abian jarri, Madrildik beharrezko materiala ekarriz. 1786an, Mantelik idazlan erlijioso labur bat editatu zuen lehendabizi: *Methodo de ofrecer el Rosario de Maria Santisima*. Roblesek estu ikusi zuen berehala bere burua, Mantelik prezio nabarmen merkeagoak eskaini

zituelako urte horretan bertan. Dagoeneko lehiakide bat zuela ikusita, eskatu zuen berrets zekiola Arabako inprimatzaile ofiziala izatea: monopolioa. Hala egin zen, baina haren atsekaberako prezioak asko beheratuta.

Mantelik ugari inprimatu zituen Euskalerraren Adiskideen Elkartearen argitalpenak. *Lau Haizeetara* katalogoak Elkarte horren hamasei argitalpen erakusten ditu Tomas Roblesek inprimatuak, denak ere 1782 baino lehenagoko agiriak. Gregorio Marcos Robles inprimatzaile titular gisa, berriz, Elkartearen lau argitalpen agertzen dira: 1781etik 1784ra. 1785ean, ez dago Elkarte horren argitalpenen erregistrorik. Santoyok ere ez du Elkartearen argitalpenik erregistratuta urte horretarako (Santoyo, 1995: 180-183).

Lau Haizeetara katalogoan, Manteliren bederatzi argitalpen agertzen dira Elkartearentzat, 1786tik 1793ra. Argitalpen gehienak *Extractos...* dira, herri-hiri desberdinetan Elkartek egin bilkuren laburpenak eta landutako gaien azalpenak. Dударik gabe, 1794ko Konbentzioaren Gerrako gertaerek zuzeneko eragina izan zuten hurrengo urteetan Elkartearen argitalpenen batere erregistrorik ez egoteko¹⁰. 1792an, Mantelik Lorenzo Prestameroren eta Ramon Maria Agirreren *Guía de Forasteros en Vitoria* idazlanaren lehen argitaraldia gutxienez editatu zuen eta, 1798-1799. urteetan, berdin egin zuen Joaquin Jose Landazuriren *Historia civil de la M.N. y M.L. Provincia de Alava* idazlanarekin, hiru liburukitan.

Roblesek nekez aurre egin ziezaiekeen Manteliren edizio-lanen kalitateari eta gogo berritzaileari. 1801. urtean, Robles artean gaixorik baina bizirik ohean zetazala, ofizialki iragarri zen hura hildakoan Manteli izendatuko zutela Probintziako inprimatzaile, baita hala egin ere. Manteli, Robles baino askoz geroago hil zen: 1832an. Mantelik Aitzogile kalea, 56. zenbakian zituen etxea eta inprimategia (Santoyo, 1995: 249-279). Robles hildakoan (1801), Iruñean sortu Fermin Larunbe koinatuak hartu zuen haren inprimategiaren lema, 1810ean hil zen arte.

3.2.4. Donostiako inprimategiak


Donostian, 1667an, Martin Ugarte nafarrak Donostian finkatu eta inprimatzaileen leinu bati eman zion hasiera, Aldundiak soldata batez babesturik. Aldundiaren mandatuez gain, ugartetarrek eskubidea zuten kanpoko beste edizio-lan batzuk onartzeko, baldin eta hori Aldundiarekiko zituzten konpromisoen kaltetan ez bazen; alde horretatik, ez ziren egonean gelditu. Martinek editatu Arabako legeen ondoren, XVIII. mendearen atarian, Francisca Aculodi alargunak hartu zuen negozioaren lema, eta bere Probintziako inprimatzaile ofizialaren postua Bernardo semearen esku geratu zen 1691tik aurrera.

Bernardo Iruñera lekualdatu zen aldi batez, bertan *Annales del Reyno de Navarra*ren bigarren liburukia editatzeko (1695). Hurrengo urtean, ordea, Tolosan zen, *Libro de los Fueros* editatzen, Miguel Aranburu ahaldun nagusiaren jauregian. 1697an, berriz, Aranbururen *Nueva recopilación de los fueros, privilegios, buenos usos y costumbres...* argitaratu zuen, Tolosan inprimatu lehendabiziko idazlana (Fdez.

10. Armada iraultzaile frantsesa Hego Euskal Herriko lurraldeetan barrena Gaztelaraino aitzinatu zen 1794ko uztailetik 1795eko uztail arte. Orduan, Basileako Bakea sinatu zen (gertaeren berri zabalagoa «Konbentzioaren Gerra Euskal Herrian» in *Wikipedia*)

de Casadevante Romaní, 2015: 13-22), Gipuzkoaren autoafirmazio instituzional eta politikorako lege-bilduma historiko garrantzitsua. Horretan ere, Bernardo aritu zen, aldi baterako Tolosan finkatuz.

Ugartetarak lehia txikia zuten Gipuzkoan, eta ugartetarren eskuetan iraun zuen edizioak Donostian XVIII. mendeko lehen herenean. Bernardo Gipuzkoatik Madrilgo Gortera lekualdatu zenean, Ugarteren anaiorde Pedro bihurtu zen Donostiako Udalaren eta Probintziaren inprimatzaile ofizial, mende-hasieran noizbait (1703?) eta 1707an, hurrenez hurren. Pedoren Donostiako edizio-jarduerak (45 urtez, 1683-1728) etenak izan bide zituen zenbait urtetan, ez da hark egin edizio-lanen berririk agertu, behintzat.



6. irudia. Manuel Larramendiren Hiztegi hirukoitza (Diccionario trilingüe), 1745ean Donostian Bartholome Riesgoren inprimategian editatua.

Pedrok inprimatu 44 elementu bibliografiko zenbatu dira guztira; bera izan zen, izan ere, XVIII. mendeko bigarren inprimatzaile gipuzkoar oparoena. Gaien artean, legeak eta ordenantzak editatu zituen gehien, 29; hamar, berriz, erlijio-gaiak; gainerako bostak historia eta zientzia (Fdez. de Casadevante Romaní, 2015: 23-45). Pedrok argitaratu idazlanen artean kokatu behar dira Gipuzkoako prentsaren lehen aurrekariak: *Noticias Principales y Verdaderas* eta *Noticias Extraordinarias del Norte* kazeta, 1687tik 1704ra argitaratua eta Penintsulako lehendabiziko kazetetako bi; 1727-1728an, Ugartek antzeko prentsa-esperientzia bat berpiztu zuen, laburki: *Extracto de Noticias Universales* (Díaz Noci, 1996).

Pedro Ugarte hildakoan, Miguel Verak hartu zuen haren erreleboa Donostian, oso labur: 1730etik 1733ra. Urte horietako Batzar Nagusien Erregistro Liburuak

inprimatu zituen. Gasteiztik, hutsunea eta abantaila ikusirik, Bartholome Riesgo inprimatzaileak ez zuen egokiera pasatzen utzi Donostiara lekualdatzeko, 1737an behin betiko (ikus beherago), Gipuzkoako hiriak bizi zuen itsas merkataritzaren oparotasunaren uleran. Izan ere, Gipuzkoako foru-erakundeek urteko 50 dukateko soldata eskaini zioten, eta erraztasun guztiak Donostiara lekualdatzeko. 1743tik 1751ra Gipuzkoako Probintziaren, Hiriaren, Kontsulatuaren eta Caracasko Gipuzkoar Konpainiaren inprimatzaile ofizial gisa sinatzen zuen. Batzar Nagusien Erregistro Liburuko 72 ale argitaratu ohi zituen, bina dukateko kostuz (Fdez. de Casadevante Romani, 2015: 23-45). 1745ean, Bartholome Riesgok euskarazko lehen hiztegi handia editatu zuen, Manuel Larramendiren *Hiztegi hirukoitza* edo, erdaraz jatorriz, *Diccionario Trilingüe Castellano-Bascuence-Latin* (Aranburu, 2005: 135-139)¹¹.

1747an, Riesgo kexu agertu zen kualifikaziorik gabeko lehiakideak sartzan ari zirelako Gipuzkoan. Jada adindua eta Caracasko Gipuzkoar Konpainiarekin zuen harreman estuaren seinale, Riesgok utzi egin zuen Donostiako inprimatzaile-lanbidea, eta Venezuelara jauzi egin. Lorenzo Josef Riesgo semeari utzi zion lanpostuaren erreleboa eta Gipuzkoako Probintziaren inprimatzaile-titulua, 1745etik aurrera. Venezuelan bizi izan zen 1756tik 1770era, eta Lorenzo Josef Riesgo izendatu zuen oinordeko unibertsal.

1752tik aurrera, Lorenzo Josef en izena agertzen zen Batzar Nagusien agirien (erregistro-liburuen) oinetan, eta hainbat erakunderen inprimatzaile ofizial gisa sinatzen zuen: Donostia, Gipuzkoako Probintzia, Kontratazio Etxea eta Kontsulatua, eta Caracasko Gipuzkoar Konpainia. Lorenzo Josef izan zen XVIII. mendeko inprimatzaile emankorrena, guztira 105 idazlan eta agiri inprimatuz (Fdez. de Casadevante Romani, 2015: 13-22).

1785etik aurrera, konpainia hori desegin ondoren, Korrejimenduaren eta Filipinetako Konpainiaren inprimatzaile agertzen da. Ilustrazio-mugimenduaren uleran, 1780an *El guipuzcoano ilustrado* inprimatu zuen, espresuki ordainsari bat kobratuz idazlan horren truke, baina Lorenzo Josef berriz arranguratu zen, lan hori nekeza izanagatik ez zuelako ia irabazirik ikusi. Horretan urtebete eman eta sei langile (ofizial) enplegatu zituen.

1771n, estutasun ekonomikoek hartaratuta, Lorenzo Josefek urteko soldata igo ziezaiotela eskatu zion Gipuzkoako Aldundiari, baita foru-erakundeak hala egin ere. Ondorioz, inprimatzaileak zilar-kobrezko 80 dukat jaso zituen (Fdez. de Casadevante Romani, 2015: 13-22). Lantegian, Lorenzo Josefek Francisco Xabier semea hartu zuen laguntzaile 1762tik eta, 1771n, Batzar Nagusiei eskaera egin zien bera hildakoan semea inprimatzaile ofizial izenda zezaten.

Bada, onartu egin zuten eskaera. Haatik, Lorenzo Josefek luzaro jarraitu zuen inprimatzaile ofizial izaten, 1802 arte, bere heriotza-urtea, eta Francisco Xabier beste hiri batera lekualdatu zen, itxura batez bidea libre utziz Antonio Undianori, eskarmentu handiko Lorenzo Josef en inprimategiko langileari, Gipuzkoako Probintziako inprimatzaile ofizial bihurtu zedin.

11. Larramendik hiztegi horretan asmatu zuen, hain zuzen, inprimagailuarentzako euskarazko izena, neologismoa: moldiztegi (Arana Martija, 1994: 38).

Aldiz, Lorenzo Josefek Francisco Lalama izan zuen ondorengo postu hartan. Lehendabiziko aldiz, inprimatzaile ofizialak Tolosatik egin zuen lan. Undianok foru-erakundeen babes ofizialik gabe jarraitu zuen inprimatzaile. Gipuzkoan, 209 edizio-lan egin ziren guztira XVIII. mendean: 84 liburu eta 98 folletoi (Fdez. de Casadevante Romani, 2015: 47-71, 33).

3.2.5. Bilboko inprimategiak

Beste euskal lurralde gehienetan bezala, Bilbon, erlijioaren eta lurraldeko zein tokiko erakunde politikoen epelean hazi zen edizioa. 1697-1700 aldian, Juan Antonio Arriete Lezea zebilen inprimatzaile Bizkaiko hiriburuan. 1700ean, lan bakar bat editatu zuen, zehazki idazlan erlijioso baterako, Bizkaiaren identitate sinbolikoaren debozio nagusi bat, Begoñako Ama Birjina, gaitzat hartuta: *Historia, y milagros de la prodigiosa imagen de Nuestra Señora de Begoña especial abogada, y protectora del Señorío de Vizcaya*.

1703tik aurrera, Antonio Zafra Obregónen berri dugu, Madrildik etorria eta, ordurako, Bizkaiko Jaurerriaren inprimatzaile ofizial, eta hurrengo urtean baita Bilboko Udalarena ere; hor 200 errealeko urteko soldata zuen, 1707an 330era igoa («Zafra Obregon, Antonio», *Auñamendi*), baina gainera, Zafra jaunak ia 50 dukat jasotzen zituen urteko Bizkaiko Batzar Nagusiek hala erabakita (550 erreal inguru), une horretan bertan Bartholome Riesgori Gipuzkoako foru-erakundeek eskaini zioten berdina, lehen aipatu bezala (Zaldua, Mur eta Madariaga, 1995: 47). 1704. urtetik aurrera, urtero gabe, Antonio Zafrak eta izen bereko semeak, Antonio Zafra Ruedak, maiztasunez inprimatu zuten 1736 inguru arte: hamabi edizio-lan¹². Alargunak hartu zion erreleboa eta, negozioaren titular gisa, zazpi idazlan inprimatu zituen 1738tik 1748ra.

Zafraren alarguna hil eta hamarkada inguru geroago, Pedro Gayangosek bi argitalpen inprimatu zituen 1759-1760an. Antonio Eguzkitza agertzen da Bilbon inprimatzaile-lanetan 1761ean¹³, eta hamalau idazlan argitaratu zituen 1778 arte. Inprimategiari Maria Zornotzak eman zion segida, 1779tik 1792ra, «*Viuda de Antonio de Egusquiza*» markaren pean. 1792an, *Real Provisión para la Construcción de Casas errege-aginduen* zer kopuru inprimatu behar zuen galdetuta, bostehun eta mila ale artean argitaratzeko adierazi zioten Mariari, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako XVIII. mendeko administrazio-agiriaren inprimatze kopuruen ideia bat egiteko balio dezakeena (Zaldua, Mur eta Madariaga, 1995: 47).

1790erako, Simon Larunbe, Iruñeko beste inprimatzaile-leinu bateko seme (Josefaren iloba), Zornotza andreairentzat lantegian zebilen lanean. Larunbek hamaikako kopuruan egin zituen edizio-lanak 1792tik 1794 arte eta, Zornotza andrea bezala, administrazio- eta politika-testuen kopuru handia da nabarmentzekoa, horietako asko Madrilgo Errege Inprimategiaren berrinprimatzeak, ia urtero 1768tik aurrera

12. Wikidata igoetako sarrera bibliografikoetan ez dira kontuan hartu metadatuaren esplizituki berrinprimatzeak direla zehazten duten *Lau Haizeetara* katalogoko sarrera bibliografikoak, askotan Madrilgo errege-agindu eta -ediktuak, artikuluko honen oinarriko proiekturako prozeduraren arabera, kopuru adierazgarria ez den arren.

13. Izenak nahasmenerako bidea eman du, izen osoa Antonio Manuel baita (Zaldua, Mur eta Madariaga, 1995: 110), inprimatze-lanetan Antonio bakarrik agertu arren.

(lehendabizikoa *Pragmatica-sancion de Su Magestad ... en la qual se prescribe el establecimiento del oficio de hipotecas...*, 1768).

1796tik eta mende-amaiera arte gutxienez, Francisco San Martin agertzen da Bilbon inprimatzaile argitalpen erlijiosoak eta politiko-administratiboak txandakutzen. Konbentzioaren Gerra amaitu berritan, deigarria da Bizkaiko foru-erakundeek beren burua justifikatzeko idatzi eta 1798an argitaratu *Manifiesto histórico de los servicios que ha hecho el M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya en la ultima guerra con la Francia / escrito de orden del mismo, en el año de 1795*.

3.2.6. Tolosako inprimategiak

1697ko edizio-esperientziaren ondoren, ez dugu Tolosako inprimatzeren berririk luzaro. 1767an, *Maximas para la guerra* idazlana argitaratu zen Tolosan, Pedro Robertek inprimatua. Robertek ez bide zuen beste aztarnarik utzi Tolosan eta, hamarkada baino gehiago geroago, Francisco Lalama agertzen da. Lalama zegamarra zen, familiaz jatorri bizkaitarrekoa, eta bazuen lantegi bat Tolosan 1782 baino lehen.

1780an inprimatu zuen *Regla instituida por revelación divina por el gran padre San Francisco de Asis*; 1782an, Agustin Kardaberazen *Mezaco sacrificio* idazlana. *Lau Haizeetara* katalogoan, lau argitalpen agertzen dira Francisco Lalamak editaturik, guztiak ere 1784 eta 1788 artekoak. Inkisizioak gutxienez bi aldiz jazarri zuen Lalama, 1783an eta 1790ean, «esamolde desegokiak» erabiltzearen lehenengoan (*Catón cristina y catecismo de la doctrina cristiana* idazlanean), baita epaitua izan ere horren kontura.

Bestalde, Lalamak Probintziaren eta Korrejimenduaren (korrejidorearen auzitegiaren) inprimatzaile ofizialaren postua erreklamatu zuen, eta 1802an eskuratu zuen, Roblesen orde. Donostia eta Tolosa Gipuzkoako hiriburua izateko lehiatzen ziren unean, erabaki haren bidez, Tolosa lehen aldiz bihurtu zen Gipuzkoako inprimatzaile ofizialaren egoitza (Fdez. de Casadevante Romaní, 2015: 47-71). Lalama 1828 arte bizi izan zen, eta Maria Clementina Garateri utzi zion inprimategiaren lema (1829-1850).

4. XVIII. mendeko inprimategien paper-hornidura

Edizioak papera du euskarri eta lehengai. Horretan, Euskal Herriko inprimategiek Bortuez iparraldeko euskal lurraldeetako errota eta fabrikak izan zituzten hornitzaile nagusietako bat, Biarno, Bigorra eta Europako kostaldeko beste eskualde batzuekin batera. Inprimategietan baliatu paperek toki horietako filigrana izaten zuten maiz, sorburuaren berri ematen zutenak. Filigrana horietako batek, hala Gipuzkoako nola Iruñeko paperetan ageri denak, Zuberoako Antonio Cassouren zigilua darama (XVIII. mendearen hondarrean). Frantziako Perigord, Angoumois eta Herbehereak aipatu dira Gipuzkoaren paper-hornitzaileen artean (Fdez. de Casadevante Romaní, 2015: 73), azken hori Iruñearen hornitzaile ere bai.

Gipuzkoan editatu idazlanetan, aipatu Cassouz gain, papergile hauexek identifikatu dira 1774tik 1781eko epean, filigranaren arabera: P. Bonasse, Jeztazekoa

(Zuberoa); Pierre Camon, Maslac/Marlacekoa (Biarno); V. Escot, Sarrancekoa (Biarno); Jn. Monie, Soueskoa (Bigorra); Jn Camon, Bervielle (Biarno); Jn. Brun, Mirepeixkoa (Biarno); J. Lassalle, Oloroekoa (Biarno). Herbehereetako papera Bilboko portutik heltzen zen. Aipatu jatorrietakoez gain, Amsterdam, Hanburgo, Nantes, Bordele, Alacant, Anberes, Belfast, Landernau, Morlaix eta Salouko papera Bilbotik sartzen zen.


Nafarroa Garaian, Agoitzen papera egiteko paper-erota bat zegoen, eta Donibane Garazin ere paper-fabrika zegoen, 1782an sortua. Ordurako, ordea, bazen hor paper-erota bat, haren buru Jules Fargues arituz. Iruñeko Miguel Antonio Domechek (1758) eta Pascual Ibañezek (1766), izan ere, hura baliatu zuten beren inprimatze-papererako *Quadernos de las Leyes y Agravios reparados* kaieretako edizioak argitaratzeko. Jatorri horretako papera erabili zen, adibidez, Moreten *Annales del Reyno de Navarra* Erresumaren kronikaren bigarren liburukia berrinprimatzeko, Ibañezen eskutik.

Garaziko paper-iturri beretik edan zuen Gasteizko Tomas Roblese 1770, 1779 eta 1780an; izan ere, gasteiztar horrek Bortuez iparraldeko hornitzaileengana jotzen zuen eskusiban papera eskuratzeko. Garazira ez ezik, euskal lurraldetik ez oso urrunera, lurralde eta pertsona hauexengana: Biarnora, Landa herriko I. Cassouenera; Bigorrara, Souesko J. Ferranenera (César-Santoyo, 1995: 86-87). Bizkaiko lehendabiziko (eskuzko) paper-erota 1779koa da, Berrizen instalatua bertako burdinola baten aldamenean; beste bat, berriz, Zallakoa izan zen, urte batzuk geroagokoa, Avellanadako Antonio Urrutia jauntxoak sustatua. Gipuzkoan, berriz, 1803an eraiki zen lehendabizikoa, Oria ibaiko Alegian, Juan Ibar zuberotarraren eskutik¹⁴. Urte hori baino lehenago, jokorako karten lantegi xumeak existitu ziren han-hemenka (Zaldua, Mur eta Madariaga, 1995: 8-11).

Inprimalekua	Inprimatu idazkien kopuruak
Iruñea	197
Gasteiz	60
Bilbo	52
Donostia	22
Baiona	10
Tolosa	6

9. irudia. 1700-1799 aldian inprimatu idazkien kopuruak (Wikidatako lagina).

14. Papergintza horren guztiaren eraginak Bortuez hegoaldeko geroko papergintzaren garapena hauspotu zuen. Oria ibaiko *La Esperanza* izan zen Espainia osoko lehen paper-fabrika iraunkorra, jada XIX. mendean (Fdez. de Casadevante Romani, 2015: 23-45).



10. irudia. 1700-1799 aldian inprimatu idazkien kopuruak.

5. Ondorioak

Humanitate digitaletako proiektu honetan edizioaren guztizko kopuruak eta ehunekoak atera ez arren, hainbat fasetan izan diren joerak ondorioztatu ditugu, konstante orokorra izanik edizio-jardueraren hazkundera. Tolosarako lagineko datuak urriak dira, baina bat datoz errealitatearekin, eskueran ditugun datuen arabera. Baionakoak, berriz, lagin handiagoa eskatzen du adierazgarria izateko, baina *Bilketa* katalogo digitalekiko konparazioak datu zehatz eta argigarriagoak ateratzeko modua eman du.

Estimatu da mende hortan hirukoiztu egin zela aztergai dugun eremuan editatu idazki-izenburuen kopurua, XVI. mendeko dozenaka batzuen aldean. Mende hartako edizio kopuruaren joera orokorrari erreparatuz, bereizten dira lehendabiziko desegonkortasun eta ernamuin fase bat (1700-1727), hazkunde txikiko fase bat (1728-1754), hazkunde bizkor eta labur bat (1755-1761), gainbehera (1762-1765), 1766ko erpina, edizioaren sendotze orokor bat (1767-1793), Konbentzioaren Gerraren inpaktua (1794), eta suspertzea (1795-1799). Fase historikoetako gertaera politikoen eta ekonomikoen arabera, irakur daitezkeen joerak dira.

Euskal Herrian, XVIII. mendea edizioaren sustraitze-aldia izan zen, bazterrera utziz gure herrialdean ordu arte nagusitu zen inprimatzaile ibiltarien joera, eta bat etorritik edizioaren Europako zabalkundearekin: askotariko idazkien, liburuen eta agirien eskaria areagotzea. Hiriburuetan, iraunkorki finkatu ziren inprimategiak eta inprimatzaile ofizialak, 1722an azkena, Gasteizen. Diru-sarrerek modua eman zutenean, agintari zibilak, Eliza eta goi-burgesia prest agertu ziren edizio-lanak sustatzeko eta inprimategi bat finantzatzeko.

Inprimatzaileak lan-esku espezializatua ziren, gehienez Euskal Herriaz kanpotik iritsiak edo/eta kanpoan heziak. Hiriburuetan finkaturik, familia-negozioak eta inprimatzaile-leinuak osatu zituzten, gremioko beste batzuekin harremanetan. Gurasoek haurrei transmititu ohi zizkieten inprimategiko ondasunak. Ezagutza

teknikoa gizonezko seme-alabek jasotzen zuten, baina ez beti emakumeek, gehienez inprimategiaren kudeaketara eta etxeko zaintze- eta ugaltze-lanetara alboratuak.

Inprimategiek ez zituzten oso urrun paper-hornitzaileak, errotak edo/eta fabrikak: ediziorako paperen hornitzaileak Bortuez iparraldeko euskal lurraldeetan eta Bortuetako lurralde auzoetan zeuden; papera Europatik ere ekartzen zen, itsas merkataritzaz. Bilbo agertzen da paperaren inportaziorako portu nagusi Bortuez hegoaldera, eta Baiona haren igorle Bortuez iparraldera. Hurbiltasun horren eraginpean eta kostaldeko itsas merkataritzaren epelean, Bizkaian 1779an agertu zen lehendabiziko paper-errota, eta jada XIX. mendeko lehen urteetan, Gipuzkoako Oria ibaian.

1728tik aurrera, Caracasko Gipuzkoar Konpainiaren eta itsas merkataritzaren epelean sortu aberasbideak bere marka utzi zuen edizioan. Dirua sartu eta bildu ahala, behatu daiteke ugaltze egin zirela administrazio-agiriak, eta didaktika- zein doktrinatzeko asmoz ondutako idazlan erlijioso katolikoak. Gai erlijiosoetan, dinamismo handia erakutsi zuten Baionak, Iruñeak eta Donostiak, Jesusen Konpainiako kideen bultzadaz azken bietan, herriari Eliza katolikoaren mezua helaraztearren. Euskarak inprimaleku horietako idazkietan izan zuen presentzia handiena. Bilboko eta Gasteizko inprimategiak zertxobait uzkurrago agertzen dira gai erlijiosoei, eta hizkuntzaren erabileran gaztelaniara lerratu ziren guztiz.

1750erako, Bortuez iparraldera Lapurdik bakarrik atxiki zuen autonomia eta kemen politikoa, Zuberoak (1730) eta Nafarroa Behereak (1743) Frantziako Koroaren presiopean berea galdu ahala. Errealitate politiko-administratiboa eta komertziala Baiona frantsesura lerratu eta Lapurdiko hiribildu horixe agertzen da bakarrik aktibo edizioan, Fauvet leinuaren bitartez nabarmenki. Baionan, Fauvet-Duhart inprimategia *Journal Maritime de Bayonne* kazeta hasi zen argitaratzen, baita *errelazione* direlakoak, euskaraz, 1766tik hara. Berripaper horiek harrera beroa izan zuten elizjende euskaldun kontserbadorean, eta Ipar Euskal Herriko kazetaritzaren hazia erein zuten XIX. mendeari begira.

Espainiako Koroaren zentralizazio-asmoek Hego Euskal Herriko lurraldeen auto-afirmazio politikoa eta instituzionalizazio-prozesua hauspotu zituzten. Espainiako Koroarekiko dialektikan, XVIII. mendean, ugaltze egin ziren, batetik, lurraldeen foru-berezitasunak justifikatu eta nabarmentzen zituzten agiriak, eta, bestetik, administraziokoak. Lehendabizikoetan, 1685ean hasi eta XVIII. mendean luzatzen den *Annales del Reyno de Navarra* atalkako idazlana nabarmentzen da, haren liburu guztiak 1766an berrinprimatuz. Hain zuzen, era horretako eta erlijio-kutsuko idazlanen ekoizpenak 1766 du urte oparoena, eta erabakigarria: euskararen debekuarena. Gehienetan gai erlijiosoei lotua, Penintsulako euskal lurraldeetan ez zen euskaraz editatu gehiago 1782 arte, izenburu solteren bat ez bada. Jesusen Konpainia agertzen da argien aipatu testu mota horien bultzatzaile, 1767. urtearen udaberriko errege-aginduz Espainiako Koroak debekatu eta egotzia, edizio kopuruen eten bat ekarri Iruñean.

Bigarrenetan, 1767tik hara, Koroaren administrazio-agiriak ugaldtu ziren: berredizio-lanak. Ia urteroko maiztasunez berrinprimatu ziren Espainiako Koroaren administrazio-agiriak, errege-agindua bereziki, Bilbo inprimalekutzat harturik. Gainera, ugaldtu egin ziren ilustrazioak lantzen zituen gai zientifiko eta teknikoak. Mendearen hirugarren herenean, agerian geratzen da Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte ilustratuaren ekimena eta edizio-emankortasuna, Gasteiz erdigune harturik ugari inprimatuz. Elkarte horrek Baltasar Manteli izan zuen inprimatzaile oparoena. 1782az geroztik, bestalde, seigarren inprimaleku bat agertzen da Euskal Herrian, Gipuzkoan Donostiarekin lehian: Tolosa, Francisco Lalama nagusi duen inprimategiaren bidez, eta XIX. mendearen lehen herenean izan zuen segida.

6. Bibliografia

- Arana Martija, Jose Antonio (1994): «Euskal Herriko inprentaren historia», *Uztaro*, 37-53, <<https://www.uztaro.eus/artikulua/13/euskal-herriko-inprentaren-historia/541>> (Kontsulta: 2022-11-07).
- Aranburu, Gotzon (2005): *Euskal Herriko historia ezkutua*, Gaiak, Donostia.
- Azurmendi, Joxe (2020): *Pentsamenduaren historia Euskal Herrian*, Jakin - UPV/EHU, Andoain - Leioa.
- Batcave, Louis (1908-01-15): «Documents sur les Imprimeurs-Libraires de Bayonne», Vinson, Julien. *Revue de linguistique et de philologie comparée: recueil trimestriel de documents pour servir à la science positive des langues, à l'ethnologie, à la mythologie et à l'histoire*, 41, 13-23, <<https://www.bilketa.eus/ark:/12148/cb32857847m/1908/01?posInSet=2&queryId=434eaae6-4e77-4c1c-bb12-1a18ce99cc13>> (Kontsulta: 2022-11-11).
- Berners-Lee, Tim: «Fiver Star Data», <<https://5stardata.info/en/>> (Kontsulta: 2023-03-14).
- Díaz Noci, Javier (2000-05-12 / 2000-05-19): «El nacimiento del periodismo en lengua vasca: la relación de Bayona de 1766», *Euskonews*, 78, <<https://www.euskonews.eus/zbk/78/el-nacimiento-del-periodismo-en-lengua-vasca-la-relacion-de-bayona-de-1766/ar-0078001001C/#>> (Kontsulta: 2022-10-14).
- Díaz Noci, Javier (1996): «Kazetaritzaren sorrera Euskal Herrian: XVII. eta XVIII. mendeetako kazetak eta errelazioak», *Zer*, 1(1), Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, <<https://addi.ehu.eus/handle/10810/40590>> (Kontsulta: 2022-11-09).
- Fdez. de Casadevante Romaní, M^a Dolores (2015): *La imprenta en Guipúzcoa (1585-1850)* (doktorego-tesia), Aula Documental de Investigación (ADI).
- Fernández de Casadevante Romaní (2016/01-06): «La imprenta en Gipuzkoa», in *euskonews*, <<https://www.euskonews.eus/0704zbk/gaia70402es.html>> (Kontsulta: 2023-03-15).
- «Editada la obra “Escribir e imprimir. El libro en el Reino de Navarra en el siglo XVIII”, de Javier Itúrbide» (2007-11-02), in *Sala de Prensa*, Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua, <https://www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2007/11/02/0211CU31.htm> (Kontsulta: 2022-10-27).
- Itúrbide Díaz, Javier (1995): «Autores extranjeros en las imprentas navarras (siglo XVIII)», in *Huarte de San Juan. Geografía e historia*, 2, Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa, <<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=186889>> (Kontsulta: 2022-11-01).
- Itúrbide Díaz, Javier (2007): *Escribir e imprimir. El libro en el Reino de Navarra en el siglo XVIII*, Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua, Iruñea/Pamplona.

- Itúrbide Díaz, Javier (2007): «Catálogo de libros impresos en el Reino de Navarra en el siglo XVIII», in *Escribir e imprimir. El libro en el Reino de Navarra en el siglo XVIII*, 1, Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua.
- Itúrbide Díaz, Javier (2007): «Diccionario de impresores y libreros en Navarra en el siglo XVIII», in *Escribir e imprimir. El libro en el Reino de Navarra en el siglo XVIII*, 2, Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua.
- Itúrbide Díaz, Javier (2007): «Apéndice documental», in *Escribir e imprimir. El libro en el Reino de Navarra en el siglo XVIII*, 3, Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua.
- «La edición en España», *Biblioteca virtual Miguel de Cervantes*, <https://www.cervantesvirtual.com/portales/editores_editoriales_iberoamericanos/edicion_en_espanya/> (Kontsulta: 2023-03-31).
- Lafourcade, Maïte, «L'Autonomie administrative du Pays Basque de France sous l'Ancien Régime», *Jado: boletín de la Academia Vasca de Derecho = Zuzenbidearen Euskal Akademiaren aldizkaria*, 19, 2010, 111-139, <<https://dialnet.unirioja.es/ejemplar/253852>> (Kontsulta: 2023-01-05).
- Madariaga Orbea, J. eta Adot A. (koor.) (2014): *El euskera en las altas instituciones de gobierno a través de la Historia / Euskara gobernuko goi erakundetan Historian zehar*, Pamiela, Arre (Nafarroa).
- Olaziregi, Mari Jose et al. (2017-2019): *Euskal Edizioaren Mundua*, UPV/EHU, <<https://mhli.net/project/el-mundo-editorial-vasco-estudio-historico-de-la-evolucion-del-campo-s-xix-xxi/>> (Kontsulta: 2023-03-15).
- Oregi Zarautz, Sabin (1997): *Contribution des médias basques à l'extension fonctionnelle de l'euskara : de l'intérêt des socio-types linguistiques. Analyse prospective* (doktorego-tesia), Université Michel de Montaigne-Bordeaux 3.
- Santoyo, Julio Cesar (1991): «Pierre Duhart-Fauvet. Un impresor francés en Vitoria (1811-1813)», *Sancho El Sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 1, 265-274.
- Santoyo, Julio Cesar (1995): *La imprenta en Álava. Historia, obras, documentos. Vol. I. El siglo XVIII* (1995), Fundación Sancho el Sabio, Vitoria.
- Vinson, Julian (1894-12- 28): «Notes préliminaires: I. L'imprimerie et la librairie à Bayonne», *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, J. Maisonneuve, Libraire-Editeur, Paris, xxii-xlii, <<https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go543738.locale=eu>> (Kontsulta: 2022-11-11).
- Vinson, Julian (1889-07-15): «L'imprimerie et la librairie», in Rialle, Girard de eta Vinson, Julien, *Revue de linguistique et de philologie comparée : recueil trimestriel de documents pour servir à la science positive des langues, à l'ethnologie, à la mythologie et à l'histoire*, 22, J. Maisonneuve, Libraire-Editeur, Paris, 211-232, <<https://www.bilketa.eus/ark:/12148/cb32857847m/1889/07> > (Kontsulta: 2022-11-11).
- Zaldúa, I.; Mur, P. eta Madariaga, X. (1995): *Artes gráficas. Una introducción a la Historia de la Imprenta en el País Vasco*, Bizkaiko Foru Aldundia: Kultura Saila / Diputación Foral de Bizkaia: Departamento de Cultura, Bilbo.